1.3 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an neurri zehatz batzuk ezartzen ditu Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko .

5. artikulua.– Zuzentze neurriak.

1.– Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, urtebetean helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.

2.– Dena den, zor helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020 urteko denbora muga.

3.– Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzailletzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

1.2 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, bere 2. artikuluan aldatu egin du otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasun eta iraunkortasun finantzario arloan tutera finantzarioaren eskumena garatzen duena

2 Artikulua. Aldatzea 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, artikulua. Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

Modu honetan aldatzen da 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua:

Bat.Honela idatzita gelditzen da 5. artikulua 1. apartatua:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ez «1. bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko».

Bi.4. eta 5. apartatuak gehitzen zaizkio 5. artikuluari; hona hemen beren edukia:

Era «4. berean, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzarrari edo organo baliokideari, Kontu-hartzailetzako organoak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- a) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- b) Urteko zor publikoko helburua betetzea.
- c) Urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

5. Foru arau honen 3. artikuluan jasotako Diputatuen Kontseiluaren erabakian zehaztu ahal izango dira aurrekontu egonkortasunari, finantza iraunkortasunari edo gastu aruari buruzko helburuetan gerta daitezkeen gehieneko desbideratzearen mugak, hain zuzen plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharretik salbuesten dutenak».

1.3 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 1.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ aurrekontu egonkortasunari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

1. erregela. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2014ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan ipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

—Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

—Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galera-Irabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2014ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, bai 2014ko gastuen eta sarreren aurreikuspen egoeran, eta baita urteko kontuetan ere.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

1.4 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 3. go. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “Gastu arauari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. erregela. Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua izango da 2013aren eta 2014aren artean gastu konputagarriaren bariazioa % 1,5 baino handiagoa ez izatea.

Gastu konputagarria zehazteko enplegu ez finantzarioetatik abiatu beharko da, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioaren arabera neurtuta, eta horietatik kenduko dira bai interesak, bai beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia.

Enplegu ez finantzarioak zehazteko, berriz, aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuak hartuko dira oinarritzat. Horrez gain, enplegu ez finantzarioetan eragin adierazgarriak duen bestelako eragiketak egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Diru-bilketaren hazkunde iraunkorrak dakartzaten Araudi aldaketak onartzean edota bilketan eragin positiboa izando duten kudeaketa neurriak aplikatzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izango da 2014an. Era berean, diru-bilketaren murrizketa iraunkorrak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dakartzaten araudi-aldaketak onartzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean gutxitu beharko da 2014an.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzari, kontu-hartzaileak sinatua, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

—2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

—2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean.

1.7 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 2. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ zor publikoaren helburua” ri buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. erregela. Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2014ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2013an likidatutako sarrera arrunten %95 baino handiagoa.

Zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2013ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, abaleatik eratorritako arriskua barne; eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2014rako aurreikusitakoak, eta kenduko zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Zorraren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2014-2017 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorraren ratioa %70 baino handiagoa ez izatea.

1.8 2015eko maiatzaren 19ko 108/2015 alkate dekretuak erabaki zuen onartzea 3/2015 Kreditu aldaketen espedientea, Kreditu Gehigarrien modalitatean, partida berriak aurreikusten dituen gastuetan edo jada daudenak zabaltzea. Honako taularen arabera da aldaketa hori:

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Aldaketak
1.0000.601.153.30.0	San Bartolome plazako estalkia	112.000,00	40.966,00
1.0000.622.324.00.0	Egi ikastetxeko teilatua konpontzea	159.000,00	41.000,00
	GUZTIRA.....		81.966,00

1.8.1 Espediente horrek betetzen du “zor publikoaren helburua” zor bizia, 2014ko abenduaren 31n haxe delako: 2013ko likidaturiko diru-sarrera arrunten %49,90 soilik; eta goian aipaturiko instrukzioaren 2. arauak xedatzen du zor bizia ezin dela izan 2013an likidaturiko diru-sarrera arrunten %95 baino altuagoa.

1.8.2 Dena den, 2014ko aurrekontu orokorrerako 5/2014 kreditu aldaketen espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, ez du betetzen 1.go araua “aurrekontu egonkortasunaren helburua” izenekoa ezta 3. araua “Gastu araua” izenekoa, txosten honetako “Aurrekariak” ataleko 2 eta 3 azpiataletan aiaptu direnez.

1.8.2.1 “Aurrekontu egonkortasun helburua” ez da betetzen, ehun eta hogeita hamar mila bederatzehun eta hogeita sei koma laurogeita hamabost (-130.926,95€)defizita duelako , SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Foru Aldundiaren helburua 2015eko defizita zero izatea da.

Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, ondoko taulan ageri den moduan:

GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.429.000,00	I KAP	Z. zuzenak	1.055.463



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

II	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	1.864.086,57	II	Z. zeharkakoak	30.000
III	Interesak	8.500,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	664.432
IV	Ohiko transferentziak	559.296,53	IV	Ohiko transferentziak	2.678.605
V			V	Ondare diru-sarrerak	9.000
VI	Inbertsioak		VI	Inbertsio.-erreal. besterentze	
VII	Kapital transferentziak	730.043,85	VII	Kapital transferentziak	22.500
	GUZTIRA	4.590.926,95		GUZTIRA	4.460.000

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoia da diruzaintzako geldikina erabili izana. Horregatik, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3. paragrafoari jarraiki, kontuhartzaileak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

1.5.2.2. Bestalde “Gastu Araua” ez betetzea gauzatzen da aurrekontu aldaketan gastu konputagarrien bariazioa izan delako 2014ko aurrekontuko gastu likidatuen eta 2015eko gastu konputagarrien artean; horien artean sartuta, noski, kreditu aldaketan aurreikusitako gastuak, %4,61 eta Foru Aldundiak ezarritako helburua 2015erako da gastu konputagarriaren bariazioa %1,5 baino txikiagoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko goian aipaturiko erakundearen datu finkatuak izan dira kontuan, hurrengo taularen arabera:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	Gastu ez finantzarioa 2013 (Kap 1 - 7)	4.438.107,88
a2	Doiketak SEC	0,00
a3	Interesak 2014	9.828,39
a4	Erasandako finantziadun gastuak 2014	224.515,45
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria 2014	4.203.764,04
b1	Gastu ez finantzarioa 2015 (cap 1 a 7)	4.309.450,00
b2	Doiketak SEC	0,00
b3	Interesak 2015	8.500,00
b4	Erasandako finantziadun gastuak 2015	185.350,00
b5	Araudi aldaketa eraginak	0,00
b6	1/2015 kreditu aldaketa esped.	128.204,95
b7	2/2015 kreditu aldaketa esped.	71.906,00
b8	3/2015 kreditu aldaketa esped.	81.966,00
b=b1+b2-b3-b4+b5+b6+b7+b8	Gastu konputagarria 2015 3/2014 kreditu aldaketarekin	4.397.676,95



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

$c=(b/a-1)*100$	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	%4,61
-----------------	--------------------------------------	-------

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoia da diruzaintzako geldikina erabili izana. Horregatik, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3. paragrafoari jarraiki, kontuhartzaileak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko otsailaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 28koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

5. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

3.1 2015ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2014an likidatutako sarrera arrunten % 43,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2013ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2015erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2014an likidatutako diru-sarrera arruntak 4.472.062,91€

Zor bizia 2014.12.31n	2.098.244,17€
Abalak	0,00 €
Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak	0,00 €
2014an aurreikusitako amortizazioak	150.550,00€



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.098.244,17 -150.550,00 %= 43,55%

4.472.062,91

Foru Aldundiak 2015rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2014ko Aurrekontu Orokorraren kitapenak diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak ditu.

3.3 2015eko Aurrekontu orokorrak zero defizita du eta bere zor publikoak betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.

3.53/2015 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2015ko aurrekontu orokorreko kreditu gehigarriak modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koitunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

Horregatik, espedientea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontuhartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU

Aurrekontu Orokorraren 3/2015 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koitunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua eta gastu araua.

Ibarra, 2015eko maiatzaren 19an.

Kontu-hartzailea

Jakinaren gainean gelditzen da Udalbatza.

LAUGARRENA

ALDUNDIAREKIN HITZARMENA SINATZEKO AKORDIOA ONARTU:
DOKUMENTUEN ERREGISTROETAN IDAZKIAK AURKEZTEKO LANKIDETZA
HITZARMENAREN INGURUAN



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eskaera, idatzi eta jakinerazpenak aurkezteari buruko Lankidetzaz Hitzarmena sinatzeko borondatea azaldu nahi du. Hitzarmen honekin, herritarrak aukera izango dute Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu behar dituzten dokumentuak Ibarrako erregistroan aurkezteko. Zerbitzu honek herritarrei suposatuko dien onura kontutan izanik, lankidetzaz hitzarmena sinatu nahi da.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, eskaera, idatzi eta jakinerazpenak Ibarrako Udaleko erregistroan aurkezteko aukera emateko herritarrei.

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Foru Aldundira dokumentuen erregistro bulegoetako datuei buruzko aitortzea.

HIRUGARRENGOA: Ibarrako Udaleko Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ibarrako Udalaren artean lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko.

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman (ziurtagiri bidez) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Idazkaritza Tekniko sailari.

BOSGARRENA

UDAL KORPORAZIOKO KIDEEK ONDAREZKO ONDASUNEN DEKLARAZIOA EGITEKO TXANTILOIEN ONARPENA

Idazkariak Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 artikularen eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erreklamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 30,31 eta 32 artikuluetan xedetatukoarekin bat etorritik, udal korporazioko kideek ondarezko ondasunen deklarazio egiteko txantiloak aurkezteko dizkio Udalbatzari, honek onar ditzan.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 artikularen eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erreklamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 30,31 eta 32 artikuluetan xedetatukoarekin bat etorritik, udal korporazioko kideek ondarezko ondasunen deklarazio egiteko txantiloak.

I - ERANSKINA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

.....(e)ko UDALA

ONDASUNEN AITORPENA

I.- AITORTZAILEA

Izena eta abizenak		
NAN	Lanbidea	Telefonia
Helbidea	Udalerria	Probintzia

II.- ONDASUNAK

	ESKURATZE- DATA
--	--------------------



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

a) Hiri-lurreko higiezinak: deskribapena, kokapena eta erregistroko inskripzioaren zenbakia.

b) Landa-higiezinak: deskribapena, kokapena eta erregistroko inskripzioaren zenbakia.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	ESKURATZE-DATA
<p>c) Balore higigarriak: Tituluak eta partaidetzak.</p> <p>1) Tituluak: zenbakia eta erakunde jaulkitzailea:</p> <p>2) Partaidetzak kapital sozialean: zein Sozietatetan daukan partaidetza eta portzentajea.</p> <p>d) Gordailuak, ziurtagiriak eta bizitza aseguruak: Erakunde gordailuzaina.</p> <p>e) Etxeko altzariak edo arreoak. Nagusien zerrenda (batez ere balio artistiko handikoak).</p> <p>f) Ibilgailuak eta/edo itsasontziak: marka, modeloa eta matrikula:</p> <p>Nire, Idazkariaren aurrean egina,(e)koren(e)an</p> <p style="text-align: center;">IDAZKARIA AITORTZAILEA</p>	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ONDARE ONDASUNEN UDAL ERREGISTROA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

(Idazkariaren sinadura eta Korporazioaren zigilua)
Folia

IDAZPENA		KORPORAZIOKO KIDEAREN ABIZENAK ETA IZENA	INTERESEN ERREGISTROA		ESKURATZE- DATA
ZK.	Data		A) Aitortutako ondasun higiezinak	B) Aitortutako ondasun higiezinak	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

--	--	--	--	--	--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

B) Jarduerak, lanbideak eta lanak besteren kontura
(sozietatearen izena eta esparrua adierazi eta, hala badagokio, kargua edo enplegua)

a) Norbere konturako jarduerak edo lanbideak, komertzialak, merkantilak edo industrialak.

b) Lanak besteren kontura.

c) Diru-sarrera pribatuen beste iturri batzuk.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sarrera ekonomikorik ekarri ez eta Korporazioaren eskumenen esparrua ukitzen duten edo esparruarekin zerikusia duten beste jarduera edo interes pribatu batzuk.

Nire, Idazkariaren aurrean egin,(e)ko
.....ren(e)an

IDAZKARIA

AITORTZAILEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BATERAEZINTASUN KAUSEN ETA JARDUEREN UDAL ERREGISTROA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

(Idazkariaren sinadura eta Korporazioaren zigilua)

Folia.....

IDAZPENA		KORPORAZIOKO KIDEAREN ABIZENAK ETA IZENA	INTERESEN ERREGISTROA			DATA
ZK.	Data		A) Aitortutako bateraezintasun kausak	B) Norberaren edo besteren kontura aitortutako jarduerak.	C) Sarrera ekonomikorik ekarri ez eta Korporazioaren eskumenen esparruan eragina duten beste jarduera batzuk.	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

--	--	--	--	--	--	--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

SEIGARRENA

BILDU KOALIZIOAK MAIATZAREN 18AN GASTEIZEN ATXILOKETEN AURKA ERAIKITA ZEGOEN GIZA HARRESIAREN AURKA ERTZAINZAK IZANDAKO JARRERAREN INGURUAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA

Bildu Koalizioak honako mozioa aurkezten dio Udalbitzari honek onar dezan:

MOZIOA

Denok izan dugu aukera irudiak ikusteko eta entzuteko. Maiatzaren 18an, Gasteizen, atxiloketen aurka eraikita zegoen giza harresiaren aurka Ertzaintzak izandako jarrera eta neurritz kanpoko bortizkeria ezin dira justifikatu: kolpeak, mehatxuak, irainak... Horren aurrean, PNVri eskatzen diogu utz diezaiola estatu espainiarraren estrategia zapaltzailea betearazten duena izateari, utz diezaiola PPren beso exekutatzaile izateari. Itxura guztien arabera, batzuk iraganera atzerapausoa eman nahi dute, baina bakezko etorkizun bat eraiki nahi bada, lekuz kanpo daude estrategia horiek.

Izan ere, uste dugu ondo dagoela iraganaren autokritika egitea, baina garrantzitsuagoa da iraganeko estrategiekin ez jarraitzea, ez jarraitzea bidegabeko kondeneekin, behar ez diren atxiloketekin eta ez jarraitzea gure kale eta plazetan gertatzen ari diren operazio polizialekin.

Bestalde, Guardia Zibilak, asteartean, Armiarna III operazioan, 19 lagun atxilotu zituen, tartean Iker Ibarluzea herritar gaztea, sare sozialetan terrorismoa goratzea leporatuta. Mozorro horren atzean, hauteskunde kiratsaz gain, adierazpen askatasunaren aurkako bete-beteko operazio bat dago eta Ikerren beraren hitzek ezerk baino hobeto jasotzen dute operazioa: "Pentsatzen duguna esate hutsagatik atxilotu ahal gaituzte".

Horiek horrela, Udal Gobernu talde honek honako hau adierazten du:

- 1.- Salatzen dugu maiatzaren 18an Ertzaintzak Gasteizen izandako jarrera eta neurritz kanpoko bortizkeria.
- 2.- Salatzen dugu Armiarna IIIren izenpean adierazpen askatasunaren aurka Guardia Zibilak egindako operazioa.
- 3.- Elkartasuna adierazten diegu Aiala Zaldibar, Igarki Robles, Ibon Esteban eta gainerako atxilotuei eta beren senitarteko eta lagunei.
- 4.- Elkartasuna adierazten diegu Armiarna IIIan atxilotutakoei eta, bereziki, Iker Ibarluzea herritarrari, eta beren senitarteko eta lagunei

EAJ-PNVko zinegotzi den Itziar Jauregik hitza eskatu eta honako adierazten du: EAJa mozioan adierazten diren 4 eskaera edo adierazpenekin ados dago baina EAJ taldea PP talde politikoaren beso exekutatzailea dela esaten duen zatiarekin ez da ados agertzen. Ertzaintzaren jarrera gehiegizkoa izan dela onartzen dute baina ez aldiz PPren beso exekutzaileak direnik. Hau da arrazoia mozio honetan abstentzioaren botua emateko (adierazpen horrekiko desadostasuna nahiz eta mozioaren funtsarekin ados egon).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, 7 aldeko botorekin (7 BILDU) eta abstentzio 1ekin (1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzen du Bildu Koalizioak maiatzaren 18an gasteizen atxiloketen aurka eraikita zegoen giza harresiaren aurka ertzaintzak izandako jarreraren inguruko mozioa

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak Salatzen dugu maiatzaren 18an Ertzaintzak Gasteizen izandako jarrera eta neurritz kanpoko bortizkeria.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udalak Salatzen du Armiarma IIIren izenpean adierazpen askatasunaren aurka Guardia Zibilak egindako operazioa.

LAUGARRENGOA: Ibarra Udalak elkartasuna adierazten die Aiala Zaldibar, Igarki Robles, Ibon Esteban eta gainerako atxilotuei eta beren senitarteko eta lagunei.

BOSGARRENGOA: Ibarra Udalak elkartasuna adierazten die Armiarma IIIan atxilotutakoei eta, bereziki, Iker Ibarluzea herritarrari, eta beren senitarteko eta lagunei

SEIGARRENGOA: Erabaki hau prentsan jakinarazi.

ZAZPIGARRENA

AMNISTIA INTERNACIONAL EUSKADIK UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO EKIMEN BATEN BABESA ESKATUZ.

Amnistia Internacional Euskadik honako mozioa aurkezten dio Udalbatzari honek onar dezan:

MOZIOA

Erakunde-adierazpena, Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunerako (maiatzak 17)

Kontuan izanik gizon-emakume guztiak aske eta duintasun eta eskubide berberak dituztela jaiotzen direla, eta estatuek saihestu egin behar dituztela sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko eta genero-adierazpenagatiko indarkeria nahiz gorrotoa eta errespetatu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioak;

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaietan aplikatzeko Yogyakarta Printzipioak (2007);

Aintzat hartuta, halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena, 2011ko ekainaren 17koa, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren 2011ko azaroaren 17ko txostena (Leyes y



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género);

Kontuan hartuta Amnesty Internationalen txosten hauek: Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad (2008), Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsahariana (2013) eta Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa (2013);

Nahigabea adieraziz homosexualitatea oraindik legez kanpoko delako 80 herrialdetan (horietako 36 afrikarrak) eta heriotza-zigorraz zigortzen dutelako Afganistanen, Brunein, Iranen, Mauritania, Pakistanen, Saudi Arabian, Sudanen, Yemenen eta Nigeriako eta Somaliako estatu batzuetan;

XXXXX ko Udalak:

- Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty Internationalek dokumentatu dituen kasu batzuegatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten dela, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualak, transexualak, transgeneroek eta intersexualak tratatu txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dira:
 - KAMERUNEN, JEAN-CLAUDE ROGER MBEDE kontzientzia-presoa “homosexualitatea eta homosexualitate-saioa” leporatuta ezarritako hiru urteko espetxe-zigorra. 2011ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailean eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak berriz espetxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarrilean.
 - HEGOAFRIKAN, NOXOLO NOGWAZA aktibista lesbianaren hilketa. 2011ko apirilaren 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).
 - TURKIAN, AHMET YILDIZen hilketa. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailearen 15ean. Iritzi orokorraren arabera, “ohorearen” izenean egindako hilketa izan zen.
 - BULGARIAN, MIHAIL STOYANOVen hilketa. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoa: haren sexu-orientazioa (erasotzaileek uste zutena).
 - BIELORRUSIAN, IHAR TSIKHANYUKUN homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarrilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izategatik. Haren zauriak ez zituzten dokumentatu, eta tratatu txarregatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.
- Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro;
- Gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatzeke, auzipetzeke eta zigortzeko bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabeteke eskatu nahi du;



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

- Sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo ustezkoak) izateagatik atxilotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatu nahi du;
- Justizia-administrazioko edozein mailatan sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro debekatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administraziokoak eta beste edozein arlotakoak;
- Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urraketa guztien salaketak eta txostenak dagozkien agintariak bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela bermatzeko eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzera behartzeko ere. Ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntuan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu;
- Sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietan “gorroto-krimenak” eragin ditzaketen ezaugarri babestutzat sar daitezela eskatu nahi du;
- Eskatu nahi du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profesionalei prestakuntza eskain diezaietela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume ororen giza eskubideei buruz, LGBTI kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialetan sar dezatela;
- Giza eskubideen defendatzaileak xaxatzeari uzteko eskatu nahi du, eta babes egokia bermatzeko sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenentzat;
- Eskumena ematen dio Udalako Alkateari, hitzarmen hau bidaltzeko Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobernuetara Espainian dituzten enbaxaden bitartez.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzen Amnistia Internacional Euskadik Homofobiaren eta Transfobiaren aurka aurkeztzen duen mozioa

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak, Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty Internationalek dokumentatu dituen kasu batzuegatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten dela, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualek, transexualek, transgeneroek eta intersexualek tratatu txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dira:

–KAMERUNEN, JEAN-CLAUDE ROGER MBEDE kontzientzia-presoiari “homosexualitatea eta homosexualitate-saioa” leporatuta ezarritako hiru urteko espetxe-zigorra. 2011ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailean eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak berriz espetxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarrean.

–HEGOAFRIKAN, NOXOLO NOGWAZA aktibista lesbianaren hilketa. 2011ko



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

apirilaren 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).

–TURKIAN, AHMET YILDIZen hilketa. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailaren 15ean. Iritzi orokorraren arabera, “ohorearen” izenean egindako hilketa izan zen.

–BULGARIAN, MIHAIL STOYANOVen hilketa. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoia: haren sexu-orientazioa (erasotzaileek uste zutena).

–BIELORRUSIAN, IHAR TSIKHANYUKUN homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarrilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izateagatik. Haren zauriak ez zituzten dokumentatu, eta tratu txarregatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.

HIRUGARRENGOA: Ibarako Udalak, Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro.

LAUGARRENGOA: Ibarako Udalak, gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatzeko, auzipetzeko eta zigortzeko bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabetzeko eskatu nahi du.

BOSGARRENGOA: Ibarako Udalak, sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo ustezkoak) izateagatik atxilotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatu nahi du.

SEIGARRENGOA: Ibarako Udalak, Justizia-administrazioko edozein mailatan sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro debekatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administraziokoak eta beste edozein arlotakoak.

ZAZPIGARRENGOA: Ibarako Udalak, sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urraketa guztien salaketak eta txostenak dagozkien agintariek bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela bermatzeko eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzera behartzeko ere. Ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntuan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu.

ZORTZIGARRENGOA: Ibarako Udalak, sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietan “gorroto-krimenak” eragin ditzaketen ezaugarri babestuzat sar daitezela eskatu nahi du.

BEDERATZIGARRENGOA: Ibarako Udalak, eskatu nahi du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profesionalen prestakuntza eskain diezaietela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume ororen giza eskubideei buruz, LGBTI kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialetan sar dezatela

HAMARGARRENGOA: Ibarako Udalak, giza eskubideen defendatzaileak xaxatzeari



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

uzteko eskatu nahi du, eta babes egokia bermatzeko sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenentzat.

HAMAIKAGARRENGOA: Ibarra Udaleko Udaltzako eskumena ematen dio Udako Alkateari, hitzarmen hau bidaltzeko Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobernuetara Espainian dituzten enbaxaden bitartez.

HAMABIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman, Kamerungo, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako, Bielorrusiako gobernuetara Espainian dituzten enbaxaden bidez eta Amnistia Internacional Euskadiri.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamabostean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.